



Iraunkortasunabuletina

Asteazkena, 2024ko urtarrilak 17

Zenbakia: 04

ONLINE IKASTAROA

Faktorek estutzen zaituzte? Independizatzeari ezinezkoa dirudi?

Iraunkortasunaren arloko Zuzendaritzak **"Independizatzeari ezinezkoa? Bizirauteko eta kontsumo arduratsuko kita"** ikastaroaren 2. edizioa abiarazi du. Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutuaren laguntzarekin. Eman izena urtarrilaren 25era arte eta ikasi antolatzen.



ONLINE IKASTAROA



Zure laborategian segurtasunez moldatzen ikasi nahi duzu?

Gure online prestakuntza-eskaintza **"Jardunbide egokiak laborategian (II): hondakin kudeaketa"** ikastaroarekin osatzen da. Izena emateko epea urtarrilaren 19an amaituko da TEKAZELentzat eta urtarrilaren 25ean IIP eta ikasleentzat. Ez utzi pasatzen!

ALBISTE INTERESGARRIAK

Unicities 2030 proiektua: IIP bazara, garaiz zaude bat egiteko

Ostiral honetan, urtarrilaren 19an, Arabako Campusean unibertsitatearen eta Vitoria-Gasteizko Udalaren arteko lehen lan-saioa egingo da, 2030a baino lehen hiria klimatikoki neutroa bihurtzen lagunduko duten GrAL eta MAL egiteko. IIP bazara eta ekimena interesatzen bazaizu, jar zaitez gurekin harremanetan: iraunkortasuna@ehu.eus. Zure zain gaude!



Human Rights Youth Challenge: "Ura bakerako eta lankidetzarako tresna gisa"

Konpromisoaren eta Eragin Sozialaren arloko Zuzendaritzak "Giza Eskubideen VI. Erronka" ekimenarekin kolaboratzen du. 18 eta 24 urte bitarteko ikasleek bideo bat (v-log) edo gaiari buruzko beste edozein eduki digital ekoitzi eta bidali ahal izango dute 2024ko otsailaren 15era arte eta sarietako bat irabazi.

HURRENGO EKITALDIAK

Ez galdu!

2024/06/06 – 2024/06/07. [Conferencia Internacional Socioecos. Cambio climático, sostenibilidad y prácticas socioecológicas.](#) Call for papers: 2024/01/25

2024/06/20- 2024/06/21. [KulturGest Bilbao Kongresua: ARTEA, KULTURA ETA ONDAREA: kudeaketa eta jasangarritasunerako praktika egokiak.](#) Matrikula egiteko epea laster irekiko da.

2024/07/03 – 2024/07/05. [SEED. International Conference on Sustainable Energy Education.](#) Deadline for abstracts and proposals: 2024/01/26

2024/10/23 – 2024/10/24. [Klima Aldaketa eta Itsasertzari buruzko mugaz gaindiko VI. Kongresua.](#) Komunikazioak bidaltzeko epea: 2024/05/01